

Familia egiturak Iruñean XIX. mendeko amaieran

(Family structures in Iruñea-Pamplona at the end of
XIXth century)

Mendiola Gonzalo, Fernando

Eusko Ikaskuntza

García Castañón, 2-6

31002 Iruñea

BIBLID [1136-6834 (1996), 24; 145-156]

Industriaurreko hiriek harreman estuak dituzte nekazal ingurarekin, inmigrazio garrantzitsua dela eta neurri handi batean. Artikulo honetan 1887.eko Iruñea, oraindik ia industrializatu gabea, dugu aztergai, beren egitura familiarren azterketara hurbilketa bat egiteaz, eta portaera horiek azaltzeko arrazoiak bilatuz. Bide horretan inmigrazioaren garrantzia eta konposizioak, eta familien iharduera ekonomikoek informazio lagungarria ematen digute aztertzen jarraitzeko.

Giltz-Hitzak: Familia. Industriaurreko hiria. Inmigrazioa

Las ciudades preindustriales viven en muy estrecha relación con el mundo rural, en parte debido a la importante inmigración que reciben. En este artículo se hace una introducción al estudio de las estructuras familiares en una ciudad preindustrial, la Pamplona de 1887, tratando de ver cuáles son los factores que contribuyen a explicarlas. En ese sentido, la importancia y composición de la inmigración así como la actividad económica de las familias dan información sobre la que seguir investigando.

Palabras Clave: Familia. Ciudad preindustrial. Inmigración.

Les villes pré-industrielles vivaient en étroite relation avec le monde rural et cela se devait, en partie, à l'importante immigration qu'elles recevaient. Dans cet article on a fait une introduction à l'étude des structures familiales dans une ville pré-industrielle, celle de Pampelune de 1887, tout en essayant de voir quels sont les facteurs qui aident à les expliquer. Dans ce sens, l'importance et la composition de l'immigration ainsi que l'activité économique des familles nous offrent l'information pour continuer nos recherches.

Mots Clés: Famille. Ville Pré-Industrielle. Immigration.

1. SARRERA:

Familiari buruzko ikasketen ekarpenak garrantzitsuak izan dira demografia zein historia sozialean aurrera egiteko tenorean. Horiek kontutan hartu gabe, ezinezkoa izango litzaiguke hala giza erreprodukzioaren mekanismo garrantzitsuenetariko batzuk, nola pertsonen sozializazioa edota estrategia ekonomikoak konprenitzea. Lehenengo hurbilketa bezala Laslettek sortutako tipologia erabilgarria izan ahal zaigu, honen bidez familia moeta ezberdinak sailka baititzakegu. Egitura hauek, generalizatuak diren heinean, eragin handia dute gizartearen antolkuntzan; izan ere, horien bidez arautzen dira pertsonen bizitzaren aspektu emozional, kultural eta ekonomikoak. Egitura horiek osatzeko orduan faktore ezberdinen eragina aurki dezakegu, besteak beste, familiaren jarduera ekonomikoa, inguru kulturala, inguru fisikoaren oreka ekolojikoak, eta abar, (Mikelarena,1992a:34-40). Jakin badakigu honelako analisi estati-koek limitazio handiak dituztela, (Reher,1984), baina, halere, derrigorrezko abiapuntua dira.

Industriaurreko Nafarroan bi zonalde ezberdinu ditzakegu familia egituren azterketaren arabera, (Mikelarena,1991, eta 1992b). Nafarroako Mendialdeak eta Erdi Aldeak osatzen dute lehendabizikoa, eta horretan familia konplexua (familia hedatu zein anitzak) da nagusi. Erriberak osatzen du bigarrena, estreinakoa baino askoz txikiagoa dena, eta bertan familia nuklearra guztiz generalizatuta dago. Banaketa hau azaltzerakoan, Mikelarenak arrazoi kulturalari ematen dio garrantzia; izan ere, familia konplexuaren nagusitasun eremua XVI.mende-ko euskararen erabilpen eremu bera da. Autore honen arabera, sustrato etnokulturalak (XVI. mendeko euskararen hedapena horren adierazpea litzateke) azaltzen du familia konplexu-aren eremua, non tronkalitatea den familia berrien osaketa arautzen duen irizpidea. Argi dago familiaren lanbideak eta egoera sozioekonomikoak ere baldintzatzen dutela osaketa hori, eta klase sozialen arteko ezberdintasunak Nafarroako lurralde guztietan agertzen direla. Nafarroako Mendialde eta Erdialdearen arteko ezberdintasun ekonomikoek, alta, ez dute era- gozten lurralde hauen portaera berdintsua familiari dagokionean.

Komunikazio honetan hiri giroan murgilduko gara, 1887ko Iruñean¹ hain zuzen ere, fami- lia egiturak aztertzeke. Jakin badakigu hiriek berezko ezaugarri ekonomikoak dituztela. Orain ikusi beharko dugu familiak osatzeko ohitura bereziak dituzten, ala nekazal inguruko ereduak jarraitzen dituzten. Zein puntura arte egiten du bat Iruñeak bere inguruarekin, sustrato etno- kultural horren ereginaz? Irla bat bezala mantentzen al da, berriz?² Honi guztiari argitasun pixka bat eman liezaioketen datuen bila mugimendu migratorioak aztertu behar ditugu, horiek hiria eta inguruaren arteko komunikazioa mantentzen duten bide garrantzitsua izan baitaitezke. Horrexegaitik, batetik garai horretan inmigrazioak zuen garrantzia azalduko dugu, eta bestetik etorkinen zenbait ezaugarri argituko ditugu. Horretarako, lehenik eta behin aurreko mendearen akaberan Iruñea zein nolako hiria zen azaltzen saiatuko gara, eta halaber zeintzuk ziren bere hazkundearen arrazoiak, Europan ematen den urbanizazio prozesuare- kin harremanetan jarri.

1 Hauxe izan da erabili dudan metodoa: Zentsoaren laginketa bat informatizatu egin dut, 4.868 pertsona (kuarteletako soldaduak ez daude sartuta), eta hurrengo aldagaiak dituen datu basea sortu dut (gizabanako zein familia maila):familia kode zenbakia, kalea, zenbakia, pisua, familiaren tamainua, sexua, adina, egoera zibila, senidetasun mota, familia egitura, sorterrria, lanbidea, hirian emandako urteak eta alfabetazioa.

2 Mercedes Arbaizak (1994) ederki azaltzen du hiri eta nekazal inguruen konplementaritatea industriaurreko Bizkaian, arlo ekonomiko zein demografikoan.

2. IRUÑEA JOAN DEN MENDEAREN BUKAERAN: INMIGRAZIOAREN GARRANTZIA INDUSTRIALIZATU GABEKO HIRIETAN

XIX. mendeko bigarren erdialdean hazkunde demografiko nabarmena gertatzen da Iruñean, mendearen bukaeran hasten den geldiuena gibelean utziz. Nafar hiriburua 1786an³ 14.066 biztanle izatetik, 1843an⁴ 12.326 izatera pasatzen da, 1887an⁵ 26.633 izateko. Orain arte egindako ikerketak gutxi badira ere, argi dago hazkunde honen arrazoi nagusia inmigrazioa dela (García-Sanz Marcotegui, 1981: 528-536). 1935ean ere ondorio bera ateratu zuen Huderrek honako datuak oinarritzat hartuz: 1871. urtetik 1930. urtera arte 50.956 jaiotze eta 58.033 heriotz erregistratu ziren Iruñean. Bere esanetan “*se aprecia a simple vista que la mortalidad ha excedido en mucho a la natalidad, siendo hasta el año 1927 rarísimos aquellos en los que ha ocurrido lo contrario, y aún esos en pequeña proporción*”(Huder, 1935: 16). Beraz, argi dago hazkunde naturala negatiboa izanik, inmigrazioan bilatu behar dugu hazkundearen arrazoa.

Orain arte informatizatu dudana bi laginketan⁶ ere etorkinen garrantzia oso nabaria da: 1843an biztanleen %51,6a Iruñetik kanpo jaiotakoa da, eta 1887an talde hau %60,8ra igotzen da. Datu hauek guztiak zihurtatzen digute hiriko biztanlegoa osatzeko momentuan inmigrazioak garrantzi handia duela, industrializazioak sortutako aldaketak agertu baino askoz lehenago; izan ere, argi dago 1843an hiriaren jardura ekonomiko nagusiak artisautza eta nekazaritza direla (Madoz, 1845-50: 299). Komunikazio honetan aztertzen dugun unean ere, 1887an, oso egitura industrial ahula topatzen dugu (Los Huertos, 1991), baina zalantzarik gabe burdinbidearen agerpenak eta Ezkabamendiko gotorlekuaren eraiketak inmigrazioa bultzatu zuten, portzentaiaren hazkundera azalduz.

Hala ere, mendean zehar ematen den hazkunde demografikoa oso nabarmena izan arren, hiriaren fisonomiak ez du asko aldatzen. 1887an gotorlekuek Iruñea itxi eta itotzen dute. Harresietatik kanpo zeuden auzoak, Arrotxapea, Magdalena eta geltoki aldea, oraindik nahiko txikiak ziren (Urbayen, 1953: 129-226), eta ez zuten inolaz ere konpontzen pilaketa arazo larria. Honen inguruan eztabaida zabala piztu zen hiriko erakunde eta foro askotan. Horren ondorioz, ezer gutxi konpondu zuen I. Zabalgunea eraikitzen hasi ziren 1888an, (Lazcano, 1903: 42).

Iruñeko kasua, dena den, ez da, inondik inora, salbuespena. XVI. eta XIX. mendeetako hirien hazkundera ikertu duten historiagile eta demografoek mendebaldeko Europa osoan inmigrazioak izandako garrantzia agerian utzi dute (Vries, 1987: 227-322). Ezinezkoa litzateke hirien hazkunde demografikoa aztertzea inmigrazioa kontutan hartu gabe; izan ere, heriotz tasa altuek eta fertilitate baxuak hazkunde natural negatiboa eragin zuten Europako hiri gehienetan XIX. mendera arte (Vries, 1987: 227-322).

Beraz, emigrazioaren inguruan duela gutxira arte guztiz onartuak zeuden zenbait topiko baztertu behar ditugu. Ikuspegi klasikoak⁷, Ravensteinek aurkeztutako Migrazioen Legeekin

3 Censo de Floridablanca. (Mikelarena, 1993)

4 Iruñeko Udal Errolda, 1843. Iruñeko Udal Artxiboa. Misericordiako txiroak, Hermanas de la Caridad delakoak, Inklusan bizi direnak, akuartelatutako militarrek eta San Pedroko erlijiosoak ez dira kontatzen.

5 Censo de Población. 1887. 2.999 akuartelatutako militar barne.

6 1843tarako 4184ko pertsonak osatutako laginketa erabili dut, 1887ko aldagai berak erabiliz, (alfabetizazioa ez da agertzen). Iruñeko Udal Errolda, 1843.

7 Migrazioei buruzko teoria ezberdinen aurkezpen ona egiten dute Ruiz Olabuenaga eta Blancok (1994: 55. 113)

hasiz, migrazioak ezohizko fenomenotzat hartzen ditu, gertakizun berezi batzuk bultzatutakoa: horren adibidea push and pull izeneko azalpena da, hau da, kanporatze eta erakarpen faktoreak azaltzea. Tradizio ikertzaile honen arabera, migrazio masiboak gehien bat industrializazioak eta modernitateak sortutako aldaketan ondorioa dira. Beraz, gertakari generalizatu bezala, migrazioak zerbait berria, aro garaikidearen ezaugarria lirateke. Ikuspegi hau, baina, azken urteotan behin baino gehiagotan kolokan jarri dute. Kubat eta Hoffmann-Nowotnyren arabera (1981) mugikortasuna gizartean ezaugarri iraunkorra da. Hilda beretik, gero eta ikerketa gehiago migrazioen garrantzia erakusten ari dira industriaurreko Europa Modernoan, eta betez ere hirietako biztanlegoaren osaketan.

Estatu espainiarrean, egoera sozio-ekonomiko ezberdinak direla medio (Camps,1993: 26-36), hiri eredu eta migrazio jarraibide aniztasuna aurki dezakegu, baina XIX. mendeko hiriei buruz orain arte egindako ikerketetan argi geratu da migrazioaren garrantzia, garapen industrialia ezagutu zuten hirietan ezezik, ekonomikoki nahiko estankatuta zeudenetan ere (Mikelarena,1994, 16-20). Hau sakonki ikertu du Reherrek Cuencako kasuan, eta hortxe ere, oso hiri tradizionala bada ere, biztanlegoaren mugikortasun handia soma dezakegu, hirian sartu zein ateratzeko (Reher, 1990b: 170-171).

Esan dezakegu, hortaz, XIX mendearen bukaeran migrazioa oinarritzko faktorea dela estatuko hirien hazkundea azaltzeko orduan. Europako zenbait lekutan, berriz, aldaketa bat soma dezakegu garai honetan: poliki poliki, hirietan hazkunde natural iraunkorra ematen da, eta horixe izango da, inmigrazioa baino gehiago, biztanlegoaren hazkundea azaltzen duen faktore nagusia (Reher, 1990a: 284-285).

Orain arte azaldutakoa aintzat hartuz, familia egiturak aztertzen hasi baino lehen, Iruñeko inmigrazioaren konposaketaren azterketari ekingo diogu, laburbilduz bada ere, eta kontutan hartuz gure hurbilketak ez dizkigula errealitatearen alor asko argitzen⁸. Hasteko, etorkinen gehiengoa 35 urte baino gutxiagokoak direla esan dezakegu, baina talde zabal honen barruan adin talde guztietako pertsonak aurki ditzakegu. 15-24 bitartekoak garrantzitsuak badira ere, haurren portzentaia horien parekoa da. Honek erakusten digu migrazio prozesuan familiek garrantzia handia zutela. Neska-mutil gazteak ezkongabe eta bakarrik etortzen dira Iruñera, eta adin honetakoen artean badira neskame bezala datozenak, baina hala ere, esan dezakegu etorkin gehienak familia baten partaide gisa egiten dutela bidaia. Ondorio horretara heldu gara etorberrien egoera zibila aztertu eta gero, baina dena den antzeko zerbait frogatu dute beste ikerlari batzuek hiri ezberdinetan⁹. Era berean, eta hiri gehienetan bezala (Reher:1990b: 171), etorkinen artean emakumenzkoak gehiengoa dira.

Sorterriari dagokionez, nafarrak dira etorkinen gehiengo zabal bat, %72,77, hauen artean Iruñeko Kuenkakoak izanik talderik handiena, eta orokorrean Nafarroako Erdialdekoa. Nafarrak ez diren artean, berriz, Euskal Herriko beste lurraldetakoak, Aragoikoak eta Gaztela-Leongoak dira ugarietak. Familian egindako migrazioen garrantzia aintzat hartuz, normala da etorkinen erdiak ez duela deklaraturako lanbiderik¹⁰ikustea. Hauetaz aparte, tal-

8 Iruñeko etorkineei buruz hemendik aurrera azalduko ditudan datuak sakonkiago agertzen dira nere beste ikerketa batean (Mendiola, 1995). Orain aipatutako ditudan datuak hortik jasoak dira.

9 (Reher,1990b: 171-172), (Pareja,1994: 3) eta (Camps, 1994: 13 y 1993: 32-35), eta (Schurer, 1991)

10 Erreza liteke teorian lanbiderik ez duten pertsonak behinbehineko lanak egitea. Hala ere, kontuan hartu behar dugu emakume askok ez dutela "su sexo" edota "sus labores" bezalako lanbide deklaratuak. Ikerlari askok azaldu dutenez, (SCOTT y TILLY, 1975), etxekoandarearen figura, ekoirpen mundutik kanpo eta erreproduzio lanetan baino ez diharduena, XIX. mendean sortutako lortzeko helburua da neurri handi batean, oinarri errealik gabekoa, batez ere klase xumeen artean.

derik handiena morroiena da (etorkinen %13,4), eta, neurri txikiago batean, ugariak dira halaber jornalariak, artisauak, lanbide liberaletan aritzen direnak eta zerbitzuetan dihardutenak, (talde bakoitza %7 gutxigorabehera). Argi dago, beraz, inmigrazioak lanbide guztietan eragin handia zuela; izan ere, bakoitzean langileen %60 baino gehiago etorkinak ziren. Cuencako kasuan bezala (1990b: 176-179), lanbide liberalekoek, morroiek eta jornalariak dute mugikortasunerako joera nabariena (langileen %83 Iruñetik kanpo jaioak).

3. FAMILIA EGITUREN AZTERKETA

Iruñeko familia egiturak aztertzen hasi baino lehen, komenigarria da hiri giroko etxeari buruz hausnarketa batzuk egitea, bere esanahia hobeki ulertu ahal izateko.

1887ko zentsoan familia eta hogarra parekatzen dira orri familiarrak osatzeko tenorean, (Mikelarenak,1992a: 19) baina parekatze hau, garaiko agintariak onartzen bazuten ere, ezta-baidagarria izan dakiguke gaurko historiagileoi; izan ere, hiri batean pisu edo etxe konkretu batean familia bat baino gehiago bizitzea posiblea baitzen. Zalantza hau bereziki beharrezkoa zaigu beheko klaseen familia egiturak ikertzen ditugunean, etxebizitza arazo larria baitzen langileen familia gehienentzat, eta konpartitzea ohizko praktika zen, askotan azpierreantapen gisa. Ikerlari askok azaldu dute agintariak gaitzestutako praktika hau. Hauentzat familia eta etxearen arteko berdinketa programa paternalistaren oinarritzko zerbait zen, ordenaren zutabeetariko bat (Sierra, 1990:112-143)¹¹

Iruñeko kasuan zaila zaigu errealitatea zehazki ezagutzea, baina mende hasierako medikua zen Lazcanok ematen digun informazioa oso adierasgarria da. *“Encontramos a las familias en un sólo cuarto donde se guisa, come y duerme y se retienen más o menos tiempo las aguas sucias con desprecio de la higiene y desafiando el contagio; en habitaciones húmedas que no han sido visitadas jamás por un tenue rayo de luz solar. Si alguna vez las hayamos en habitaciones de regulares condiciones higiénicas, se ven obligadas a subarrendar parte de las mismas para sufragar su importe, ocurriendo entonces que carecen de cubicación suficiente y creando siempre el hacinamiento, este núcleo alrededor del cual pululan tantos males”* (1903, 42). Honek pentsarazten digu 15 urte lehenago ere, 1887an, I Zabalgunea eraiki gabe zegoenean, pilatze eta azpierreantapena ohizkoak izango zirela.

Guzti hau oso garrantzitsua zaigu familia egiturak ikasteko orduan, zentsuek ematen diguten informazioa erlatibizatzeke. Beharbada errealitate ofizial horren azpian beste errealdade larriago zegoen, bi edo hiru familia pisu bera konpartitzen. Horrela, zentsuaren egileen arabera “hogar” bezala agertzen zaiguna, alokaturiko geta bat baino ez zen. Hurrengo ikerketetan saiatu beharko dugu honetan sakontzen, demografia eta historia sozialaren oinarritzko alor hau hobeki argitzeko¹².

Iruñeko egitura familiarrak aztertzean (1. kuadroa) nabaria zaigu familia nuklearrek gehiengo osatzen dutela, (%70,9 hain zuzen ere), hiri batean gauza arrunta izanik. Hala ere, antzeko eta garaiko beste hiriekin konparatu ezker, argi gelditzen da Iruñean familia konplexuak garrantzi nabaria duela. Ikertariak %20 edo 25eko portzentaia aipatzen dute familia mota honen nagusitasunaren froga gisa¹³, eta Iruñean %17,31 baino ez du lortzen, baina hiri

11 Ezin dugu ahaztu XIX. mendean zehar, eta XX.aren hasieran ere, hogar tradizionalaen eraldaketa garrantzitsua ematen dela industrializazioaren ondorioz, (Hareven, 1991).

12 Zailtasun hauei buruz oso interesgarriak dira García Gonzalezen (1990) hausnarketak

13 Kontuan hartu behar dugu momentu konkretu batean nuklear bezala agertzen zaizkigun familia asko konplexuak izan edo izango direla bizitza zikloaren beste momentu batzuetan.

batentzat oso portzentai altua dela esan dezakegu¹⁴, gainera, antzeko errealitatea aurkitzen dugu 1786an, %18,6, (Mikelarena,1993: 6) eta 1843an, %18,71¹⁵, fenomeno honen iraunkortasuna frogatuz.

Honen azalpena ez da gauza erreza, hirian ematen den ekonomiaren aniztasunak oztopatu egiten baititu errealitate familiarrei buruzko generalizazioak. Bestalde, familia konplexuaren garrantzi bera ez dugu topatzen ekonomikoki antzekoak izan litezkeen beste hiri tradiziozaleetan, (Cuenca edo Logroño, besteak beste), ekonomikoki ezberdina den Nafarroako Erdialde eta Mendialdean baizik, arestian aipatu bezala. Hala ere, hiriko ekonomiaren ezaugarriak direla eta, tronkalidadeak lanbide bakar batzuen praktika baino ez zela izango pentsa dezakegu, eta erlatibizatu egin behar dugu faktore honen pisua, edota familia konplexuak osatzeko ohitura kulturala tronkalidadea baino gehiago izan daitekeela pentsatu.

Ziur aski fatore asko izan beharko dugu kontuan familia egituren arazoietara ongi hurbiltzeko, baina abiapuntu bezala¹⁶ komunikazio honetan bi aldagai izango dugu aztergai. Lehengoak familiarren egoera sozioekonomikoari buruzko informazioa ematen digu: buruaren lanbidea; bigarrena, sustrato etnokulturaleren argibidea izan daiteke: migrazioa, hau da, familia burua eta ezkontidearen sorteria. Azken honen bidez, ezagutu ahal izango dugu ea etorkinek beren lurraldearen praktika familiarren transmisioak direnentz. Horretarako, Nafarroako Erdialde eta Mendialdeko etorkinak (hau da, Nafarroako zonalde tronkala dituko duguna) eta gainerakoak konparatuko ditugu, ea haien arteko ezberdintasunak aurkitzen ditugun.

1. *Kuadro: Familia egiturak ezkontideen sorteriaren arabera (lruñekoak ala etorkinak).*

	bak.	Nukl. gabe	nukl.	hedat.	anitza	OSOTARA
burua ezkont.						
lruñ. lruñ.	0	0	71,7	25	3,33	60
lruñ. etork.	0	0	76,2	19,8	3,96	101
lruñ. ez dago	15,5	31,0	39,3	9,52	4,76	84
etork lruñ.	0	0	73,7	21,9	4,39	114
etork. etork.	0	0	85,7	11,8	2,55	510
etork ez dago	19,8	17,1	48,0	11,9	3,17	252
OSOTARA	5,62	6,16	70,9	14,1	3,21	1121

Iturria:1887ko zentsoaren orri familiarrekin osatuta. Iruñeko Udal Artxiboa

1. Kuadroari begiratzen badiogu lehendabiziko emaitza atera ahal dugu. Inmigrazioak badu eragina familia mota azaltzeko orduan, izan ere bi ezkontideak Iruñekoak direnean

14 Cuencan familia konplexuaren portzentaia %8.3 da 1800ean, eta %12 1844ean (Reher, 1987: 106-110). Logroñon %8,69 da XVIII. mendeko portzentaien batzabestekoa (Lázaro eta Gurría, 1992: 108).

15 Gorago azaldutako udal erroldaren laginetatik aterako datua.

16 Martxan daukadan tesi doktoralean aspetu guzti hauetan sakontzen jarraitzen dut.

topatzen dugu familia konplexuen portzentai altuena, %28,33, eta bietariko bat Iruñekoa izanik ere, portzentaiak altu mantentzen dira, %25aren inguruan.

Lehenengo hurbilketa honekin, beraz, ondorio batzuk atera ditzakegu. Alde batetik argi dago Iruñean jaio izanak, hau da, etorkin ez izateak, familia konplexuen baldintzapen garrantzitsua dela. Bestetik, argi dago etorkinek ere familia konplexuak osatzen dituztela, hirian jaiotako ezkontide batekin ezkozuz, edota euren artean. Azken kasu honetan, familia konplexuaren portzentaiak erakusten digu hori ez zela tendentzia nagusia, baina hala ere, holako biztanlego mugikorrarentzat kontuan hartzekoa da.

Lehen aipatu bezala, familia buruen lanbideak informazioa pixka bat ematen digu familiaren egoera sozio-ekonomikoaz; egia da sailkapen horren azpian oso errealitate ezberdinak aurki ditzakegula, baina hala ere tendentzia batzuk agerian utziko dizkigu¹⁷ (2. kuadroa).

2. kuadroa: *Egitura familiarrak buruaren lanbidearen arabera*

	Bak.	nukl. gabe	nukl.	hedat.	anitza	OSOT.
Jorn. asalarat.	3,89	0,41	82,2	10,2	3,28	488
nekazariak	2,50	0	62,5	27,5	7,50	40
artisansuak	2,72	0,68	73,5	21,1	2,04	147
Zerbitzuak	6,02	12,0	58,6	21,8	1,50	133
Lanbide liberal	0	7,21	73,9	13,5	5,41	111
Jabeak	2,94	23,5	55,9	14,7	2,94	34
Lanbiderik gabe	16,0	11,7	54,3	13,8	4,26	94
Txiroak	23,1	15,4	53,8	7,69	0	13
jokileak	27,5	5	60	5	2,50	40
Apaizgoa	4,76	90,5	0	4,76	0	21
OSOTARA	5,62	6,16	70,9	14,1	3,21	1121

Iturria: 1887ko zentsuaren orri familiarrekin osatuta. Iruñeko Udal Artxiboa

Kuadroan agerian gelditzen da faktore sozio-ekonomikoak garrantzia handia duela portaera familiarrak azaltzeko. Asalarlatuen arteko familia konplexuen portzentaiak (%13,48) errez gaintzen dute nekazarien familiek (%35) eta neurri txikiago batean artisauenek (%23,14) eta zerbitzuetaoek (%23,3). Egoera intermedia batean aurkitzen ditugu jabe, lanbide liberal edota lanbiderik ez dutenen familiak. Hau ikusirik, argi gelditzen da familia konplexuen nagusitasuna oso matizatuak gelditzen dela lanbideen arabera. Hala ere, portzentai hauek guztiak altuak dira hiri batentzat, eta antzekotasun gehiago dute Lizarra bezalako hiri nafar

17 Sailkapen honetan "jornalari/asalarlatua" bezala hartu ditut nekazaritzan, artisautza, edota zerbitzuetan soldada edo alokairu baten truke lan egiten dutenak (zentsuan horrela agertu ezker). Ekoiptzen madioen jabetzarik ezean, talde honetakoez ez dute tronkalitatearen logika jarraitzeko beharrik familiak osatzeko.

txikiarekin (Erdozain eta Mikelarena, 1990: 25-27), probintzia kapitalak diren Cuenca (Reher, 1987: 106-110) eta Logroñorekin (Lázaro eta Gurría, 1992: 108) baino.

Sorterriaren eragina aztertzeko bi taldetan banatu ditugu Iruñean bizi ziren etorkinak, batetik Nafarroako Mendialde eta Erdialdekoak, non familia konplexuaren nagusitasuna agerian dago, eta bestetik gainerakoak. Azken talde hau, dena den, ez da batere homogeneoa, baina uste dut bi taldeen arteko konparazioa esanguratsua dela. Beste ikerlan batean (Mendiola, 1995, 15) sorterriaren arabera azterketa zehatzagoa burutu genuen, baina talde haundien errepresentatibidade altuagoa aintzat harturik, argiagoak dira 3. Kuadroan agertzen zaizkigun datuak.

3.Kuadroa. Egitura familiarrak ezkontideen sorterriaren arabera (burua eta ezkontidea ezberdindu gabe)

	bak.	nuk.gab	nukl.	ext.	mult.	osotara
Iruñea-Iruñea	0	0	71,7	25	3,33	60
Iruñea-gainer.	0	0	75	21,7	3,33	60
Iruñea-ezkont.ez	15,5	31,0	39,3	9,52	4,76	84
Iruñea-naf.tronk	0	0	74,8	20,6	4,52	155
gainer.-gainer.	0	0	85,5	13,0	1,53	131
gainer.-ezkont.ez	23,5	23,5	38,2	10,3	4,41	68
naf.tronk-naf.tronk	0	0	86,7	10,2	3,03	264
naf.tronk-gainer.	0	0	83,5	13,9	2,61	115
naf.tronk-ezkont.ez	18,5	14,7	51,6	12,5	2,72	184
osotara	5,62	6,16	70,9	14,1	3,21	1121

Iturria:1887ko zentsoaren orri familiarrekin osatuta. Iruñeko Udal Artxiboa

Honek zehaztu eta baieztatu egiten dizkigu 1. Kuadroaren datuak, izan ere familia konplexuen portzentairik altuenak (%28,33) lehenengo taldean agertzen zaizkigu, bi ezkontideak Iruñekoak direnean. Ezkontideetariko bat etorkina denean, portzentaia %25era jeisten da, eta gainerako kasuetan %14 edo 15era gutxi gora behera. Hala ere, kuadro honetan emaitzak ez dira aldatzen etorkinen sorterriaren arabera, izan ere, oso antzekoak dira Nafarroako eskualde tronkalekoen portaera eta gainerako lekuetatik datozenena. Hauxe ikusirik, ez dugu topatzen sorterriaren sustratu etnokulturalaren eraginik, eta hori azpimarratzekoa da. Hala baina, saiaturiko gara informazioa hau sakontzen familia buruen lanbidea kontuan hartuz.

Aurreko ikerketa batean (Mendiola,1995:18) azaldu egin dugu zer nolako eragina duen migrazioak lanbide bakoitzaren familia egiturak azaltzeko. Jornalari eta nekazarien artean argi dago migrazioaren eragina, asko jeisten baita familia konplexuen portzentaia ezkontideetariko bat edo biak etorkinak direnean. Lanbide liberal, artisauro, edota zerbitzutako langileen artean, berriz, ezkontide bat etorkina denean ematen dira portzentaia altuenak, eta azken bi hauetan familia konplexu gehiago ditugu bi ezkontideak etorkinak direnean Iruñekoak direnean baino.

4. Kuadroa: Familia konplexuen portzentaiak familia buruaren lanbide eta ezkontideen sorterriaren arabera

LANBIDEA	SORTERRIA	fam.konp.en %	osotara (fam.)
jorn.	Iruñea-Iruñea	40	25
jorn.	Iruñea-Naf. tronk.	23,79	79
jorn.	Iruñea-besteak	14,3	21
jorn.	Naf. tronk.-Naf. tronk.	9,03	177
jorn.	Naf. tronk.-besteak	11,11	63
jorn.	Naf. tronk.-ezkont.gab.	11,63	43
jorn.	besteak-besteak	8,20	61
nekazar.	Naf. tronk.-Naf. tronk.	23,48	17
artisansauak	Iruñea-Iruñea	23,5	17
artisansauak	Iruñea-Naf. tronk.	30,98	42
artisansauak	Iruñea-besteak	30,8	13
artisansauak	Naf. tronk.-Naf. tronk.	14,27	28
artisansauak	Naf. tronk.-besteak	21,1	19
artisansauak	besteak-besteak	10	10
zerbitz.	Iruñea-Naf. tronk.	21,4	14
zerbitz.	Iruñea-ezkont.gab.	5,88	17
zerbitz.	Naf. tronk.-Naf. tronk.	27,3	22
zerbitz.	Naf. tronk.-besteak	40	10
zerbitz.	Naf. tronk.-ezkont.gab.	16,68	36
zerbitz.	besteak-besteak	36,4	11
lanb. lib.	Iruñea-besteak	38,5	13
lanb. lib.	Naf. tronk.-besteak	6,25	16
lanb. lib.	besteak-besteak	20,04	45
lanb. gabe	Iruñea-ezkont.gab.	10	20
lanb. gabe	Naf. tronk.-ezkont.gab.	23,06	39
lanb. gabe	besteak-ezkont.gab.	9,52	21
joskileak	Naf. tronk.-ezkont.gab.	3,85	26

Iturria:1887ko zentsoaren orri familiarrekin osatuta. Iruñeko Udal Artxiboa

4. kuadroak baitzatzen digu aurreko informazioa, baina orokorrean ez dugu topatzen sorterriko zonaldeen arteko ezberdintasun haundirik. Jornalarien kasuan, lehen aipatu bezala, oso aipagarria da bertako izateak duen garrantzia,(%40a bi ezkontideak Iruñekoak izanik), baina zonalde tronkaleko eta gainerakoen artean aurkitzen ditugun ezberdintasunak ez dira oso nabariak. Iruñeko batekin ezkondu daudenen artean zonalde tronkalekoengan soilik antzematen digu familia konplexuak osatzeko joera argiagoa. Artisansuen artean, argi daku-sagu bertakoek osatutako bikoteen artean ez direla ematen portzentairik altuenak, eta etorki-

nen bi taldeen artean ezberdintasun gutxi azaltzen zaizkigu. Zerbitzu alorrekoen artean, aipatzekoak dira zonalde tronkalekoak ez direnen konplexutasun portzentai altuak, lanbide liberalen artean bezala. Lanbiderik ez dutenen familietan argi gelditzen da zonalde tronkalekoen konplexutasun portzentai altuagoak dituztela. Laburbilduz, uste dugu bi talde soma daitezkeela kuadro honetan. Lehenengoan (jornalariak, artisauak, eta lanbiderik gabekoak) zonalde tronkaleko izatearen eragina soma dezakegu familia konplexuetan, artisauen artean gutxiago bada ere. Bigarrenean, (zerbitzu sektorea eta lanbide liberalak, hau da, erdi-goi klasekoak) portzentaia altuagoak ikusten ditugu gainerakoen artean.

Zaila zaigu generalidadeak egitea (lanbide bakoitzaren barnean ezberdintasun haundiak baitaude), baina honek pentsarazten digu lanbide bakoitzaren inmigrazioaren ezaugarriek eta logika ekonomikoek zerikusi handia izango zutela portaera familiarra azaltzeko. Izan ere, bigarren talde horretan, argi dago konplexutasunak zerikusi gutxi duela arrazoi kulturekin. Lehenengo taldean, berriz, sustrato etnokulturalak (kasu honetan argiago dago sorterriaren eragina), lanbidearen logikak (unidade produktiboa mantentzeko tronkalidadea, artisauen kasuan) eta beharrak sortutako elkartasun familiarrak (jornalarien artean) azaldu dezakete neurri batean konplexutasuna.

Ikusten dugunez, gaia ez da erreza, eta ikertzen jarraitu behar dugu portaera demografiko hauen arrazoietan. Kasu honetan, Iruñeko familia konplexuen portzentai altuak azaltzeko ezin dugu arrazoi ezklusibistak erabili. Ikusi dugu Iruñeak Nafarroako Erdialde eta Mendialdeko ereduari jarraitzen diola hein handi batean, eta zihuraski honen arrazoa Mikelarenak aipatutako sustrato etnokulturala izan daiteke, baina azterketan sakondu ahala, arrazoi sozioekonomikoen garrantzia ikusten dugu (familia buruaren lanbidea eta inmigrazioa), eta zailagoa zaigu sorterriaren eragina frogatzea, hau da, etorkinak portaera kultural baten transmisoreak direla frogatzea. Hala ere, ikerkuntzak jarraitu behar du, eta ziur aski, hau aurreratu ahala, aldi berean arrazoi sozioekonomiko eta kulturalak dituen portaera familiarra hobeki azaltzea lortuko dugu.

BIBLIOGRAFÍA

- ARBAIZA, M., 1994, *Estrategias familiares y transición demográfica en Vizcaya (1825-1930)*. Tesis doctoral inédita. Leioa, UPV-EHU
- CAMPS, E., 1993, "Las migraciones locales en España, siglos XVI-XX", *Boletín de la Asociación de Demografía Histórica* XI-1
- CAMPS, E., 1994, "Migrating in families: access to jobs and families of rural-urban migrants in 19th century Catalonia", *Primeros Encuentros de Demografía*. UPV-EHU, Donostia-San Sebastián.
- ERDOZAIN, P. y MIKELARENA, F., 1990, "La demografía de Estella y su merindad entre 1786 y 1930", *Príncipe de Viana*, 190. Iruñea-Pamplona.
- GARCIA GONZALEZ, F. 1990. "Historia de la familia e historia social", *I Congreso de Historia Social*. Zaragoza.
- GARCIA SANZ-MARCOTEGUI, A., 1981, "La influencia de la inmigración en el desarrollo demográfico de Pamplona", *Príncipe de Viana*. Iruñea-Pamplona.
- HAREVEN, T.K., 1991, "The home and the family in historical perspective", *Social Research*, 58, 1,
- HUDER, S., 1935, *Desarrollo de Pamplona durante los últimos cien años*. Iruñea.
- KUBAT, D. eta HOFFMANN-NOWOTNY, H.J., 1981, "Migración, hacia un nuevo paradigma", *Revista Internacional de Ciencias Sociales*, XXXIII, 2.

- LAZARO, M., GURRIA, P., eta ORTEGA, A. "La inmigración en la ciudad de Logroño durante el Antiguo Régimen." *Boletín de la Asociación de Demografía Histórica*, IX-2
- LAZARO, M. eta GURRIA, P., 1992, "La familia y el hogar en Logroño durante el siglo XVIII" ,*Boletín de la Asociación de Demografía Histórica*.. X-3.
- LAZCANO, A., 1903, *Higiene y salubridad pública en Pamplona*. Iruñea-Pamplona.
- LOSHUERTOS, C., 1991, "Localización del sector industrial en Navarra, (1888-1927): factores y condicionamientos" , *XIVIII, XIX ETA XX Mendeetako Nafarroako II. Kongresua: demografía, ekonomia eta gizartea* .Iruñea.
- MADOZ, P., *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madrid, 1845-1850.
- MENDIOLA, F., 1995, "Inmigración en Iruñea-Pamplona a finales del siglo XIX, aproximación a partir del censo de 1887". *Congreso de la Asociación de Demografía Histórica*, ADEH
- MIKELARENA, F., 1991, "Modelos de matrimonio y regímenes de herencia en Navarra a finales del siglo XVIII. *XIVIII, XIX ETA XX Mendeetako Nafarroako II. Kongresua: demografía, ekonomia eta gizartea* Iruñea.
- MIKELARENA, F., 1992 a, "Estructuras familiares en la España tradicional. Geografía y análisis a partir del Censo de 1860", *Boletín de la Asociación de Demografía Histórica*. X-3
- MIKELARENA, F., 1992 b, "Estructuras familiares y sistemas sucesorios en Navarra: una aproximación crítica desde las ciencias sociales a las perspectivas tradicionales", *Revista Jurídica de Navarra*, 14.
- MIKELARENA, F., 1993, "Estructuras familiares, ciclo de vida, composición del hogar y mano de obra extrafamiliar en el seno de los grupos domésticos de una ciudad tradicional: el ejemplo de Pamplona en 1876", *Seminario sobre Economías y estrategias familiares*. EHU-UPV.
- MIKELARENA, F., 1994, "Estructura económica, evolución cuantitativa de la población y balances migratorios de las capitales de provincia españolas en el periodo 1860-1930. Un análisis comparativo" *Primeros Encuentros de Demografía*. UPV-EHU, Donostia-San Sebastián.
- PAREJA, A., 1994. "Un viaje en familia" en *Primeros Encuentros de Demografía*. UPV-EHU, Donostia-San Sebastián.
- REHER, D.S., 1984, "La importancia del análisis dinámico ante el análisis estático del hogar y la familia", *Revista de Investigaciones Sociológicas*, 27.
- REHER, D.S., 1987, "Old issues and new perspectives: household and family within an urban context in 19th century Spain", *Continuity and Change*, 2, (1).
- REHER, D.S., 1990a, "Urbanization and demografic behaviour in Spain, 1860-1930", WOUDE, A.van, VRIES, J.de, HAYAMI, A. (eds) *Urbanization in History*. Oxford, Clarendon Press.
- REHER, D.S., 1990b, "Mobility and migration in pre-industrial urban areas. The case of 19th century Cuenca", WOUDE, A.van, VRIES, J.de, HAYAMI, A. (eds) *Urbanization in History*. Oxford, Clarendon Press.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I. eta BLANCO, M.C., 1994, *La inmigración vasca*, Bilbao.
- SCHURER, K., 1991, "The role of the family in the process of migration". POOLEY, C.G. eta WHITE, LA., "Migrants, emigrants and immigrants". London.
- SCOTT, J.W. y TILLY, L. 1975, "Womens work and the family in nineteenth-century Europe", *Comparatives studies in Society and History*, XVII
- SIERRA, J., 1990, *El obrero soñado*. Madrid.

URABAYEN, L., 1953, *Biografía de Pamplona*. Iruñea-Pamplona.

VRIES, J. de, 1987, *La urbanización de Europa, 1500-1800*. Barcelona.

YABEN, H., 1916, *Los contratos matrimoniales en Navarra y su influencia en la estabilidad de la familia*. Madrid.